

BEDERATZI PUNTUKOA

Sarritan aipatzen da bederatzi puntukoa. Bertsorik zailena dala esaten dute bertsolariek. Eta horrela da izan ere, 14 lerro izaten ditu eta, puntuak 2, 4, 6, 8, 9, 10, 11, 12 eta 14 garren lerroetan. Eta silabak honela jarri behar dira: 7, 6, 7, 5, 7, 6, 7, 6, 6, 6, 6, 7, 5.

Inoiz ez dut entzun bertsolari batek emandako definizio bat, baten baino. Murua bertsolariak, Zorroagako ikasleei egindako hitzalditxo baten, 1980-X-10an adierazi zuen bertsoetan zer dan bederatzi puntukoa. Hemen doa bere bertsoa:

*Birikak bete eta
hasiaz zilborra
bota behar dizuet
bertso jatorra.
Hori da hemen jarri
didaten zigorra
nahiz rima oroitzeko
memori azkorra
osatzen enborra
zaila ta gogorra
baina derrigorra
nahiz sarri amorra
bederatzi puntuko
bertso bat horra.*

Zazpigarren eta hamaikagarren lerroetan agertzen dan nahiz, silaba bakarrekoa da. Bestela pot egindako bertsoa izango litzateke, silabak betetzen ez dituelako. Adibide polita, bat batean bertsolari honek bota zuena. Gainera mailaka doa. Bertsolariaren egoera bertsoak botatzerakoan adierazten du: «Birikak bete eta...». Eta «bertso jatorra» dala. Bertsolaria txapelketan edo eskoladun jentearen aurrean, «zigor» bat har-tzen dago, bertsoak ondo neurtuta egin behar dituelako, bai puntuan, bai silabetan eta bai musikan.

Oztopo bat bilatzen du: «memori azkorra, osatzen enborra». Baina derrigor bertsoaren barruan sartu behar lerro, neurri eta musika, amorraldiak izanda ere. Oztopo guzti hoiek garaitu ondoren «bederatzi puntuko bertso bat horra». Hara ba bertsolariaren egoera bertso bat sortzeko larritasuna agertuz, eta erne dan loretxo horrek ematen duen poza.

Donostia, 1984-I-31.

Jose M.^a ETXEBARRIA